

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maidar Irizar Kortabarria

*Oñati,
Gipuzkoa
(1975)*

Aurkibidea



Biografia



Uribarri auzoko Gorordo baserrikoa, ama bertakoa du eta aita Antzuolakoa. Hiru anai-arreba dira. Euskal Filologia ikasi zuen, Gasteizen, eta bertan bizi da. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarriketa, [Ingo Xonau!](#) proiekturako. Mainerrek etxean jaso du hitanoa: aita egiten dio hika, antzuolarrez; ama, ordea, ez. Ahizparekin eta anaiarekin ez du egiten. Bere kabuz hasi zen Oñatiko hitanoa erabiltzen, lagun solteekin. Ingo Xonau! proiektuko kidea da.

Zintak

ONA-283

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarriketatzailerak(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-05-03
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Aitak seme-alabei hika egin die

- **Erref:** ONA-283/002
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:02:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Etxean jaso du hitanoa: hika egin die aita, Antzuolako hika, hiru seme-alabei. Ama ez. Eta auzoan ere entzun du, gizakumeen artean. Emakumeen artean ez, ezta adinekoen artean ere.</p>

2. Anai-arreben artean zuka; anaiak lagunekin hika

- **Erref:** ONA-283/004
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:03:39. **Bukatu:** 00:06:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Jakin du auzoko emakume batzuek normaltasunez zerabiltela hitanoa, baina berak ez du emakumeen artean entzun. Berak ez du senideekin hika egin izan, aitzak beraiei hika egin arren eta aitzak bere anai-arrebekin hika egin arren. Amaren familian ez dago ohiturarik. Auzoan ere umetan zuka aritzen ziren beti neska-mutikoak. Anaia gerora hasi zen hika egiten, ehiza-lagunekin. Mutilen arteko kontua da hika gaur egun, eta mutilek ez dakite neskei hika hegiten.</p>

3. Hitanoari buruz entzundakoak

- **Erref:** ONA-283/006
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:07:19. **Bukatu:** 00:08:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoaren aurkakorik ez du entzun orain arte, ez diote ahlakorik transmititu, baina galdezka hasita, orain bai, entzun ditu gauza batzuk. Mutilen kontua dela, adibidez.</p>

4. Euskararen zapalkuntzak eraginik bai nokaren galeran?

- **Erref:** ONA-283/007
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:08:45. **Bukatu:** 00:11:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Baserritarrek erdaraz egiteko jokera izan zuten, frankismo garaian euskara desprestigiatuta zegoelako, baina berak ez du zuzenean hori bizi izan. Hitanoaren galeran eragina izango zuela dio, baina ez daki zergatik gertatu den gehienbat emakumeen kasuan, euskara guztientzat egon zelako zapalduta.</p>

5. Neska eta mutil ez ziren berdin sozializatzen

- **Erref:** ONA-283/008
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:11:58. **Bukatu:** 00:13:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Mutilen eta nesken aisialdia eta sozializatzeko moduak ez dira berdinak izan, eta horrek hitanoaren erabilera ere eragin du. Emakumeen kasuan, eremu intimoko hizkera bilakatu zen.</p>

6. Egungo mutil gazteen erabilera, "berpizte" bat?

- **Erref:** ONA-283/010
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:13:37. **Bukatu:** 00:16:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Nokaren galera handiagoa izan da tokarena baino, herri guztietan. Ikerketa egiten ibili denean, hainbat baserrian entzun ditu hitanoaren kontrako iritziak. Gazteen artean mutilek darabilte, baina bere ustez ez dute jaso aurreko belaunaldiek bezala, etxean naturaltasunez. "Berpizte" moduko bat ikusten du, erabilera aldaketa bat...</p>

7. Gizakumeen arteko hikak "bizirauteko eremu" bat izan du

- **Erref:** ONA-283/011
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:16:15. **Bukatu:** 00:18:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Elkarrizketatzaileak dio mutilen kasuan ez dela etenik egon hitanoaren transmisioan. Gizakumeen arteko hikak "bizirauteko eremu" bat izan du, eta emakumeenak ez. Hitanoa zatartzat jo zuten.</p>

8. Euskara zaharrean hitanorik ez?

- **Erref:** ONA-283/012
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:18:56. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika, berorika eta zuka espainolaren eraginez sortutako tratamenduak direla dio, ez direla betikoak: 'Hi' zen singularra eta 'zu' plurala, eta 'zuek' gero sortu zen. Leizarragak hika hitz egiten zion Jaungoikoari.</p>

9. Eskoletan batua gailentzeak herri hizkeren transmisioan eragin?

- **Erref:** ONA-283/013
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:24:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Euskara batua eta hitanoa. Eskolan ez diote hitanoa erakutsi, baina batuko hitanoko formak ulertzea ez zaio zaila iruditzen, hala ere. Batuaren aurrean euskalkiek izan dezaketen desprestigioak hitanoari ez zion mesederik egingo, seguruenek. Hitanoak ez dauka lekurik maila akademikoan, ahozkorako delako, eremu informalekoa.</p>

10. Emakumeen formak berreskuratu beharra

- **Erref:** ONA-283/014
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:24:28. **Bukatu:** 00:26:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Hitanoaren osasuna Oñatin: anaia-eta ikusita, osasuntsu dagoela dirudi, indartsu, baina mutilen artekoa soilik da. Emakumeen formak oso gutxi entzuten ditu, baita adinekoen artean ere. Emakumeen formak berreskuratzea faltako litzateke.</p>

11. Emakumeek hika egiteko erreparoa

- **Erref:** ONA-283/016
- **Iraupena:** 0:04:39. **Hasi:** 00:27:42. **Bukatu:** 00:32:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Zaharragoei hika egitea zaila gertatzen zaio. Hik maila berekoen artekoa izateko muga dauka. Hala ere, oraingo mutil gazteek errazago egiten diete hika zaharragoei, emakumeek baino. Esango dutenaren beldur dira, "ausarkeria" ote den konfidantza handia ez dutenekin hala hitz egitea.</p>

12. Hika egiteak konplizitatea ematen du

- **Erref:** ONA-283/018
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:34:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Bere kasa hasi zen hika egiten, galdu ez dadin. Erabiltzen duenean hurrekotasun bat sentitzen du pertsona horrekint. Asko ezagutzen ez dituenekin ere hasi da batzuetan, eta hika egite horrek konplizitate bat sortzen du.</p>

13. Hitanoa galduko balitz, zer?

- **Erref:** ONA-283/019
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:34:21. **Bukatu:** 00:35:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoa galtzea lastima izango litzatekeela dio. Aberastu egiten du euskara.</p>

14. Zergatik hasi zen hika egiten

- **Erref:** ONA-283/021
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:35:24. **Bukatu:** 00:38:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Etxean jaso bai, baina ez zuen erabiltzen, eta bazuen kezka hori. Horregatik hasi zen. Hasieran nahastu egiten zituen hika eta zuka. Hasieran arraroa egiten zitzaion, baina gero berez irteten dela dio. Ez du gogoan zeinekin hasi zen lehenengo, ez zen erabaki hain konziente izan... Oñatin batekin bakarrik egiten du. Lagun eta lankideekin egiten du, eta denak ere euskararen pobretzearekin arduratuta daudenak dira.</p>

15. Hitanoa, ahalduntzerako tresna?

- **Erref:** ONA-283/023
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:39:31. **Bukatu:** 00:42:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Bere kasuan kontzientzia linguistikoarekin lotuta dago hitanoa erabiltzea. Ez du ahalduntze-prozesu moduan ikusten. Ez da kontziente izan nokaren galeraren arrazoiez, eta ez da emakume bila ibili hika egiteko: toka zein noka,

biak berdin darabiltza. Baina uste du balio dezakeela berdinago sentitzeko.</p>
<p>

16. Hasieran hika trakets samar: hi eta zu nahastuta

- **Erref:** ONA-283/024
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:42:12. **Bukatu:** 00:46:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika egiten hasteko prozesua. Lotsarik ez, konfiantza zegoelako, baina aditzak falta zitzaizkion. Etxean entzundakotik atera zituen aditzak, batzuetan asmatu ere bai. Erabiltzeak konfiantza dakar. Hasieran ohikoa da lehengo ohiturara joatea, zukara jotzea. Hizkuntza emozioekin lotuta dago, eta salto bat egitea suposatzen du. Zailena: gutxi egoten den jendearekin egiten jarraitzea eta taldeetan, hi eta zu nahasten direnean. Hi-k ez dauka pluralik.</p>
<p>

17. Hikabizi eta Belarriprest

- **Erref:** ONA-283/025
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:46:13. **Bukatu:** 00:47:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Azpeitiko neska batekin gertatzen zaiona: berak hika egiten dio eta hark zuka erantzun.</p>

18. "Gainetik jartzearen" sentsazio deserosoa

- **Erref:** ONA-283/026
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 00:47:38. **Bukatu:** 00:52:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Antzuolako neska batzuek esandakoaz dihardute: hika ez dakienari hika eginez gero "gainetik jartzearen" sentsazioa izatea. Maiderrri ere gertatu zaio anaiaren lagunen koadrilakoekin. Hizkuntzak botere-tresnak dira.</p>

19. Anaiarekin saiatu da hika egiten

- **Erref:** ONA-283/028

- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:53:01. **Bukatu:** 00:54:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Anaiarekin gertatzen zaiona: noizean behin ahalegina egiten du hari hika egiteko, baina hark zuka erantzuten dio eta desoreka sentitzen du. Berriro saiatuko da, hala ere.</p>

20. Entzundakotik ikasi du hika egiten

- **Erref:** ONA-283/030
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:54:39. **Bukatu:** 00:56:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Entzundakotik ikasi du. Antzuolako hitanoa eta Oñatikoa ez dira oso desberdinak, eta mutilena ere entzun du auzoan. Analogiaz ateratzen ditu aditzak. Badiharduguren aditz-taulak erabili izan ditu tarteka, idatzi behar izan duenean.</p>

21. Taldean hika eta zuka nahasten direnean, arrarotasuna

- **Erref:** ONA-283/032
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:56:45. **Bukatu:** 01:00:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Pertsona batekin bakarrik egonda arazorik ez dago hika egiteko, baina taldean hika dakitenak eta ez dakitenak baldin badaude, nahasketa sortzen da: bati hi, besteari zu... Berak ez du baimenik gabe, tratua egin gabe hika egiteko joerarik. Mutilak errazago hasten dira hika, mutil artean; lankide etorriberriari, adibidez.</p>

22. Zer egin behar da Oñatiko noka berreskuratzeko?

- **Erref:** ONA-283/033
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 01:00:32. **Bukatu:** 01:05:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Hizkuntzarekin kezka dutenak dira batez ere hika egiten hasi direnak, bere inguruan. Ez du uste "ikasteko zerbait" dela esatea denik bidea... Oñatindat noka berreskuratzeko, mutilen transmisio-modua kopiatzea proposatzen du. Emakumeen sozialiazio-modua aldatu egin denez, eta hika erabiltzeko nukleo txikiak sortu daitezke. Ahalduntzeko tresna moduan ere balio dezake, arrazoi linguistikoez aparte.

23. Euskara menderatu behar da hika egiteko

- **Erref:** ONA-283/034
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 01:05:04. **Bukatu:** 01:07:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoa erabiltzeko euskara menderatu behar da. Hika egiten duen lagun bat kalatana da: Jordi Serra. Dylan Inglis ere aipatzen du (biak daude elkarrizketatuta Ahotsak.eus proiektuan). Telebistan eta sare sozialetan hitanoa entzuteak ere lagunduko luke, baina euskaraz hizkera informalak ez dauka leku handirik.

24. Bai, ingo xonau!

- **Erref:** ONA-283/036
- **Iraupena:** 0:00:06. **Hasi:** 01:07:54. **Bukatu:** 01:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

"Ingo xonau!" esaten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com